



Eskola Kirola – 2017-2018ko lehiaketako araudia

8ko FUTBOLA

ARAUTEGIAREN LABURPENA ETA ARAUDIA

1. JOKO ZELAIA

Zelaia angeluzuzena izango da, 50 eta 65 metro bitarteko luzerakoa eta 30 eta 45 metro bitarteko zabalera. (ikus 9. orriko eranskina)

Penalti area hiru marrak mugatuko dute. Ateko marraren eta horrekiko perpendikularrean atearen zutoin bakoitzetik 9 metrora egindako 13 metroko luzerako marraren arteko eremua izango da. Bederatzi metrora eta arearen erdian penalti puntua markatuta dago, ikusteko moduan. Puntu horretatik jaurtitzen da penaltia. Penalti puntua erdiko puntutzat hartuta, penalti area bakoitzaren kanpoko alderantz sei metroko erradioa duen zirkunferentzia arku bat marraztuko da.

2. BALOIA

Kategoria guztietan, baloiaren zirkunferentzia 62 eta 66 cm bitartekoa izango da, eta haren pisua, 340 eta 390 g bitartekoa. Larruzkoak izango dira edo homologatutako beste material batekoa. Futboleko 4 zenbakikoen parekoa izango da, eta ezinbestekoa horretan jarduteko.

3. ATEA

Ateen neurriak hauek izango dira: 6 metroko zabalera eta 2 metroko garaiera

4. ATEKO SAKEA

Ateko sakea egiteko, baloia arearen edozein puntutan jar daiteke. Sakea egiteko unean erasoan ari den jokalaria arearen mugan jar daiteke baina arean sartu gabe.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

5. JOKALARIAK

Arabako eskolarteko jokoetan parte hartzeko gutxienez 10 jokalaria eta gehienez 18 izan behar dira Partida hasteko, gutxienez talde bereko 8 jokalaria egon behar dira joko zelaian. Zelaian atezain batek eta 7 jokalarik baino ezin dezakete joka aldi berean. Izena emandako guztiak atezain bezala nahiz zelaiko jokalaria bezala aritu daitezke, baina atezainaren elastikoa bere taldekideena ez bezalako kolorekoa izan behar da. Denboraldi honetan zehar talderen batek 7 lizentzia baino ez baditu aurkeztuz, partida hori 7ko futbol gisa jokatu ahal izango du. Lizentzia gehiago aurkeztuz gero, nahiz eta jokalaria kopurua gutxiago izan, 8ko futboleko jokatu du.

2. urteko benjaminen eta kimuen 8ko futboleko ez dute urtebete gazteagoek jokatzeko izango; hau da, urte horietakoek baino ezin izango dute jokatu, ez da baimenik emango ez goragoko ez beheragoko kategorietako umeei joka dezaitez.

6. NESKEN KATEGORIAK

Nesken 8ko futbolak bi kategoria ditu: batetik benjamin-kimuen eta bestetik haur-kadeteena. Kategorian horietan goragoko zein beheragoko kategorietako jokalariek jokatu ahal izango dute. Adinari dagokiona baino beheragoko kategorian jokatzeko baimenduta daudenak direla eta, ez dago mugarik ez jokalaria kopuruari ez horiek joka dezaketen denborari buruz. Gainerakoei dagokienez, 8ko futboleko arauak izango dute indarra.

7. ENTRENATZAILEA

Taldearekin izena emandako entrenatzaile-hezitzaileak nahitaez egon behar du partidetan. Entrenatzailea taldearen zuzendaria da, jokalariei aholku ematen die zelaian albotik eta jokalaria ordezkatzeko eta hutsarteak eskatzeko arduraduna da. Jokalarien, ordezkoen eta beraiekin dauden portaeraren erantzule ere izango da.

8. PARTIDEN IRAUPENA

MUTILEN 2. urteko BENJAMIN mailan eta KIMUen mailan, partidaren iraupena berrogei (50) minutuko izango da, hogeita bosna (25) minutuko bi zatitan banatuta. Horien artean bost (5) minutuko atsedena egingo da.

MUTILEN HAUR eta KADETE mailetan, partida hogeita hamabosna (35) minutuko bi zatitan banatuko da, eta horien artean 10 minutuko atsedena egingo da.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

NESKEN BENJAMIN-KIMUEN kategoriako partidek berrogeita bost (45) minutu iraungo dute. Partida horiek hamabosna (15) minutuko hiru zati izango dituzte, eta zatien artean bi (2) minutuko atsedena izango da.

NESKEN HAUR-KADETEen mailan, partidak hogeita bosna (25) minutuko bi zati izango ditu eta horien artean bost (5) minutuko atsedena izango da.

9. HUTSARTEAK

Adin-maila guztietan entrenatzaile-hezitzaile bakoitzak minutu bateko hutsarte bat eskatu ahal izango du partidaren zati bakoitzean. Hutsarte hori ez da zenbatuko denbora joko moduan.

10. JOKALARIAK ALDATZEA

Nahi adina aldaketa egin daitezke, baldin eta epaileak baimena eman eta pilota jokoan ez badago. Aldaketak zelaiaren erdigunetik egingo dira eta ordezkatutako jokalaria zelaitik atera beharko du bere ordez jokatu duen jokalaria zelaiari sartu baino lehenago. Epaileak kanporatutako jokalaria ordezkatu daiteke eta ezin dezake partida guztian berriro jokatu. Atezainak bere lekua zelaiko beste edozein jokalarirekin alda dezake, baldin eta epaileak horretarako baimena ematen badu.

Benjaminen, kimuen eta haurren mailetan, aktan jasotako jokalaria guztiek jokatu beharko dute partidaren azken hamar (10) minutuak baino lehenago. Jokalaria batek jokatu nahi ez badu, entrenatzaileak aldaketa eskatu eta jokalaria zelaitik atera beharko du, beste bat sartu gabe. Jokatu nahi ez zuen jokalaria aipatutako azken 10 minutuetako edozein momentutan sar daiteke jokoan. Aldaketa hauek egitea errazteko, epaileak partidaren amaierarako hamar (10) minutu falta direnean ohartarazi beharko du.

11.- TXARTEL HORIA

Txartel horiak jokalaria bi (2) minutuz kanporatzea ekarriko du. Epaileak txartel horia erakutsiko dio gauza hauetakoren bat egiten duen jokalaria:

- Joko arauak behin eta berriz urratzea
- Hitzez edo keinuz epailearen erabakiak gaitzestea
- Portaera ezegokia izatea
- Joko garbiaren izpirituaren aurka jokatzeko



12. TXARTEL GORRIA EDO BI HORI

Txartel gorria edo bi hori izateak jokalaria 2 minutuz kanporatzea ekarriko du, bai eta, denbora hori igarotakoan, beste jokalaria batez aldatu behar izatea ere. Aldaketa hori beste zernahi aldaketa bezala kontatuko da. Txartel gorria partidako azken 10 minutuetan erakusten bazaio, ezin izango da beste jokalaririk atera haren orde. Epaileak txartel gorria erakutsiko dio hauetakoren bat egiten duen jokalaria:

- Azken jokalaria izanik gol aukera argia arauz kontra saihestu.
- Jokalaria indarkeriaz ari izan edo zakarki jokatu.
- Asmo iraingarriz edo gordinkeriaz jokatu.
- Kargu hartu eta gero ere, kargu hartzea merezi duen portaera izaten jarraitu.

Bi horik ez dute ekarriko hurrengo jardunaldian ezin jokatu izatea; beraz, taldeak erabili ahal izango du jokalaria jokatzen den hurrengo jardunaldi edo partida ofizialean.

13. ATEZAINARI BALOIA EMATEA

Baloia atezainari eman dakioke:

- a) Baloia oinarekin borondatez ematen bazaio, atezainak baloia oinarekin bakarrik jokatu ahal izango du, inoiz ere ez eskuaz. Hala egiten badu, kornerra adieraziko da.
- b) Era berean, kornerra adieraziko da, atezainak baloia eskuaz ukitzen badu bere taldekide batek alboko sarea egin ondoren.
- c) Jokalaria batek bere atezainari baloia pasatzen badio, eta honek bere eskuetan hartzen badu, ekintza hau kornerrarekin zigortuko da.
- d) Ez da zigortuko atezainak baloia eskuz hartzea taldekide batek bularraz edo buruaz ematen dionean, horretarako berriaz prestatu gabe.

14.- JOKOZ KANPO

- a) Jokalaria bat jokoaz kanpo dago baldin eta, baloia baino aurreratuago egonik eta kontrako taldearen 13 metroko zonaren barruan dagoelarik, kontrako ateko marrik gutxienez bere kontrako bi jokalaria baino hurbilago badago. Hala ere, ondoko bi kasu hauetan bakarrik zigortuko da: alegia, bere taldekideetako bat baloia jokatzen ari den bitartean, jokalariai berak, epailearen iritziz:



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

- Jokoa edo aurkari bat oztopatzen badu
 - Bere lekutik onura ateratzen saiatzen bada
- b) Honako kasu hauetan epaileak ez du zigortu behar jokalaria bat jokoz kanpo egoteagatik:
- posizio horretan egon baina joko aktiboan esku hartzen ez badu.
 - pilota zuzen-zuzenean ateko saketik, kórnerreko saketik, alboko saketik edo bote neutraletik jasotzen baldin badu.
- c) Jokoz kanpo egotea, jaurtiketa libre ez-zuzen batekin zigortuko da. Kontrako taldeak falta egin den tokitik jaurtiko du, arau-haustea kontrako arean egin ezean. Kasu horretan, jaurtiketa librearen area horretako edozein tokitatik jaurti daiteke.

15. ARAUZ KONTRAKO LERROKAPENA

Talde batek partida bat jokatzeko arauz kontra edo modu okerrean jokalaria bat sartzen badu jokalaria zerrendan, galdutzat emango zaio partida hiru eta hutseko emaitzaz. Partidako emaitzan alde handiagoa izatekotan, emaitza hori hartuko da, talde irabazlea araua hautsi duena ez bada.

Jokalaria bat jokalarien zerrendan arauz kontra sartzearen zergatia administrazio arau bat ez betetzea baldin bada, hala nola lizentzia modu egokian bideratu ez izatea, goian azaldutako baldintzetan partida galtzeaz gainera, sailkapen orokorrean hiru puntu kenduz zigortuko da taldea.

16. PARTIDETARA EZ AGERTZEA

Ezarritako egutegian adierazitako orduan partida jokatzera agertzen ez diren taldeek honako zigorrak jasoko dituzte:

- a) Lehenengo ez agertzea: partida hiru eta huts emaitzaz galtzea.
- b) Bigarren ez-agertzea lehiaketa berean: partida hiru eta hutseko emaitzaz galtzea eta sailkapen orokorrean hiru puntu kentzea.
- c) Hala ere, partidak jokatzen jarraitu ahal izango du, horiek sailkapenerako punturik eman gabe.

Partida jokatzen hasteko nahikoa ez den jokalaria kopuru batekin agertzen den taldea, agertu gabekotzat emango da, eta dagozkion zigorrak jarriko zaizkio.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Deskalifikatutako talde batek lortutako emaitza guztiak sailkapen orokorretik ezabatu egingo dira.

17. ZELAI ETA AUTOBUS ESKAERA

Partidak jokatzeko xedez, Arabako Futbol Federazioari zelaien erabilera eskatu behar zaionean, gutxienez, hamabost egun lehenago bidali beharko zaio eskaera.

Autobus bat kontratatzea gomendagarri egiten duen pertsona nahikorik (gutxienez, hamar) badago, bat jarriko da haien eskueran.

Jardunaldi aurreko asteazkeneko 08:00ak baino lehen egingo da horretarako eskaera.

18. PARTIDEN ORDUA

Etxean jokutzen duen taldeak, nahitaez, partida jokatu den orduaren eta lekuaren berri eman beharko dio federazioari, partida hori jokatu aurreko astelehen arratsaldeko 19:00ak baino lehenago. Partida jokatzeko ordua eta lekua jakinarazten ez bada, etxean jokutzen duen taldeari partida galtzea ezarriko zaio zigor. Udalak denboraldirako aurkeztutako araudiaren arabera jardungo da Gasteizko udal futbol zelaietako partidetan. Udal kirol instalazioen eskatzaileei jakinaraziko zaie araudi hori.

Taldeetako batek beste herri batera joan behar duen partidetarako, ordua goizeko 10:00etatik 12:00etara izango da.

Halaber, partiden ordua parte-hartzaileen adinari egokitzeko gomendioa egiten da. Horrela, goragoko mailetan, partiden ordua goizago izango da beheragoko mailetan baino.

19. PARTIDEN ORDUA ALDATZEA

Orduz aldatu nahi duen taldeak nahitaez federazioari jakinarazi beharko dio. Hala ere, ez da orduz aldatuko kontrako taldearen adostasunik gabe. Gutxienez 48 ordu lehenago egin beharko zaio jakinarazpena kontrako taldeari. Adostasunik izan ezean, eta partida beste ordu horretan jokatzekotan, ordua aldatu zuen taldeari partida galdutakotzat emango zaio. (Udalak denboraldirako aurkeztutako araudiaren arabera jardungo da Gasteizko udal futbol zelaiekin)

20. LEHIAKETA EGUTEGIEN ALDAKETAK

Lehiaketan egutegia ezinbesteko arrazoiengatik baino ez da aldatu ahal izango. Edozein arrazoiengatik (elkarbizialdiak, ikasketa-amaierako bidaiak, eta abar)



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

partidaren bat geroratzea beharrezkoa denean, kontrako taldearen adostasuna eta neurketa egingo den eguna eta ordua aurkeztu beharko dira. Bi egoera horietako edozeinetan, Arabako FUTBOL Federazioari idatziz eskatu beharko zaio, gutxienez HAMABOST EGUN lehenago.

Partiduak ezinbesteko arrazoiengatik bertan behera gerartzen badira inplikaturako taldeek federazioari 48 ordu baino lehenago data berria jakinaraziko diote: Lehiaketa Batzordeak data berriaren onarpena edo ez onarpena jakinaraziko dio eta suspensioaren hurrengo 15 egunetan partida jolastu beharko da. Jai egun erabilgarriak ez badira partidak lanegunetan ipiniko dira.

Ez dira jokatuko sailkapenik ez dagoen txapelketetako atzeraturako partidak.

Arau horietakoren bat betetzen ez bada, zigor araudiko ez azaltzei buruzko artikulua aplikatuko dira.

21. PARTIDETAKO EMAITZAK

Etxean jokatzen duen taldeak Arabako Futbol Federazioari idatziz jakinarazi beharko dio partidako emaitza, neurketaren ondoko lehenengo laneguneko arratsaldeko 7ak baino lehenago. Jakinarazpen hori bi modu hauetako batez egingo da: partidako akta Federazioaren lokaletan (Amadeo G. De Salazar plaza 2 – 1. solairua, Vitoria-Gasteiz) aurkeztuz, email bidez (administracion@faf-aff.org) edota faxez bidali (tel. 945-280137) eta gero jatorrizko akta bidaliz. Etxeko taldeak emaitzaren berri ematen ez badu, talde hori honela zigortuko da:

- a) Lehenengo aldia: emaitza mantendu egingo da, baina etxeko taldeari puntu bat kenduko zaio sailkapen orokorrean.
- b) bigarren aldia lehiaketa berean: hiru puntu kenduko dira sailkapen orokorrean eta partidaren emaitza mantendu egingo da.
- c) hirugarren aldia lehiaketa berean: taldea deskalifikatu egingo da, eta izan litzakeen eskubide guztiak galduko ditu. Hala ere, partidak jokatzen jarraitu ahal izango du, horiek sailkapenerako punturik izan gabe. Azken kasu honetan, deskalifikaturako taldeak lortutako emaitza guztiak sailkapen orokoretik ezabatu egingo dira.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

22. LEHIAKETA MAILA

Talde bakoitzak, izena ematerakoan, nahitaez adierazi beharko du zein mailatan jokatu nahi duen, 2. Urteko kimuen kategorian edo lehiaketan (kimuak), jarritako adin mailaren barruan.

23. TANTOAK

Partidan aldea 8 gol baino gehiagokoa bada, partida bukatutzat emango da, baldin eta galtzen ari den taldeak hala eskatzen badu.

24. -DIZIPLINA ARAUDIA


Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUA, eskola kiroleko lehiaketen diziplina araubideari buruzkoa, aplikatuko da.

Pilatu egingo dira falta zehagarriak, alegia, ez da futbolaren eta areto futbolaren artean bereiziko, epaileen zigor espedienteen izapidetzean atzerapen edo luzapenik izan ez dadin.

ERREGELAMENDU HONETAN AURREIKUSTEN EZ DIREN JOKO EGOERA GUZTIAK 8KO FUTBOLEKO BATZORDE NAZIONALAREN JOKO ARAUEI JARRAITUZ EBATZIKO DIRA.



8KO FUTBOLA





8KO FUTBOLEKO ERREGELAMENDUAREN LABURPEN-TAULA

| | |
|--------------------------------|--|
| Joko denbora | Kimuak eta 2. urteko benjaminak: 2 zati, 25na minutukoak Haurrak eta kadeteak: 2 zati, 35na minutukoak |
| Denboraren kontrola | Denbora korritua |
| Baloia | Zirkunferentzia: 62 eta 66 cm bitartekoa eta pisua 340 eta 390 g bitartekoa. |
| Aldaketak | aldaketa kopuruak ez du mugarik |
| Hutsarteak | Minutu bateko hutsartea zati bakoitzean |
| Txartel horia | jokalaria 2 minutuz kanpora botatzea |
| Txartel gorria | Jokalaria 2 minutuz kanporatu eta gero bera aldatzea. Kanporatzea azken 10 minutuan baldin bada, ez dago aldatzerik |
| Atezainari baloia uztea | Jokalari batek baloia bere atezainari eman eta honek arearen barruan eskuz jasotzen baldin badu, ekintza hori korerreko jaurtiketarekin zigortuko da. Ez da zigorrik ezarriko baloia, nahi gabeko ekintza batean, bularraz edo buruaz jotzen bada. |
| Markagailuko aldea | Partidan aldea 8 gol baino gehiagokoa bada, partida bukatutzat emango da, baldin eta galtzen ari den taldearen entrenatzaileak hala eskatzen badu. |